



2017/12/22

Herri Administrazinoko Foru Diputatuak ezeztu egin dau Larrialdien Foru Planean aldaketarik egon danik.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordeak urteko azkenengo saioa egin dau gaur goizean. Hasteko, Talde Mistoak eskatuta, Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andrearen agerraldia gauzatu da. Arturo Aldecoa batzordekideak Larrialdien Foru Planean inguruko informazioa emon daian eskatu dau bere presentzia.

Base Gorriko sindikatuetak ordezkariek Plan horren inguruan emondako eretxietan oinarrituta, zerbitzuaren estruktura barriak larrialdi posibleen aurrean erantzuteko arintasuna zalantzan jarten ete dauen galdetu dau Aldecoa. Foru Diputatuak ezeztu egin dau edozelango koordinazio faltarik egon daikenik, eta “zerbitzuaren erabateko profesionaltasuna” azpimarratu dau.

Eguneko gai zerrendeagaz jarraituz, Arturo Aldecoa Arauz Besteko Proposamen bat aurkeztu dau, Aldundiaren esku dagozan erakundeetako beharginen aukeraketa prozesuen gainean. Talde Mistoko ordezkariek zozketa publikoa egitea proponidu dau, hautagaiak aukeratu behar dituen enpresen artean eta, beste alde batetik, hizkuntzen ezagutzea titulazio ofizialaren bidez egiaztezea. Proposamena ez da onartu, Eusko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Talde Popularra taldeek, holango prozesuetan zozketak ez daukala ezelango lege euskarririk adierazo dabelako. Abstenidu egin diran EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeak bat etorri dira ekimenaren izpirituagaz, baina proponidutako prozeduraren inguruko zalantzak erakutsi ditue.

Saioa amaitzean, kendu egin dira eguneko gai zerrendatik EH Bildu eta Euzko Abertzaleak taldeek Kataluniaren gainean aurkeztu dituen Arauz Besteko Proposamen biak.

NOTA DE PRENSA

22/12/17

La Diputada Foral de Administración Pública niega que se hayan producido cambios en el Plan Foral de Emergencias

La Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia de las Juntas Generales de Bizkaia ha celebrado esta mañana su última sesión del año, que se ha iniciado con la comparecencia de la Diputada Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, a petición del Grupo Mixto. El juntero Arturo Aldecoa había solicitado su presencia para informar acerca del Plan Foral de Emergencias.

A raíz de las opiniones de representantes sindicales de Base Gorria sobre este Plan, Aldecoa ha preguntado si la nueva estructura del servicio pone en cuestión la rapidez de respuesta ante posibles emergencias. La Diputada Foral ha negado cualquier descoordinación y ha puesto el acento en la “absoluta profesionalidad del servicio”.

Siguiendo con el orden del día, Arturo Aldecoa ha presentado una Proposición No de Norma sobre procesos de selección de personal en entidades participadas por la Diputación Foral de Bizkaia. El representante del Grupo Mixto proponía un sorteo público entre las empresas encargadas de seleccionar las candidaturas y, por otro lado, acreditar el conocimiento de idiomas mediante titulación oficial. La proposición ha sido rechazada con el voto en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Popular, con el argumento de que el sorteo no tiene soporte legal en este tipo de procesos. EH Bildu y Podemos Bizkaia, que se han abstenido, se han mostrado favorables al espíritu de la iniciativa, pero han expresado igualmente sus dudas respecto al procedimiento propuesto.

La sesión ha concluido con la retirada del orden del día de las dos Proposiciones No de Norma sobre Cataluña que habían sido presentadas por EH Bildu y Nacionalistas Vascos.